

## GORKA AULESTIAREN HIZTEGIAK:

- 1. Basque-English Dictionary (1989).**
- 2. English-Basque Dictionary (1990).**
- 3. Euskara-Ingeles / Ingeles-Euskara Hiztegia (1992) eta Erbesteko euskal literaturaren antologia liburuen aurkezpena**

*Euskaltzaindia, egoitza, 1992-XII-29*

Gorka Aulestiak eman du bere lanaren berri, eta gero, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak egin du Hiztegien aurkezpena.

Eginkizun berean, Andolin Eguzkitza euskaltzain urgazleak Gorka Aulestia-  
ren beste liburu bat ere aurkeztu du, hots, *Erbesteko Euskal Literaturaren Antologia*.




**EUSKARA-INGELES /  
INGELES-EUSKARA  
HIZTEGIA**

*Gorka Aulestia  
Linda White*

*Egoitza, 1992.12.29*

*Jose Antonio Arana Martija*

Estatu Batuetako Nevadak Renon daukan Unibertsitatean, dakizuenez, Euskal Mintegia sortu zen duela 25 urte, 1967an. "Basque Studies Programm" izenarekin bataiatua izan zen orduan eta emaitza ugariak izan ditu euskara eta euskal kultura munduan zehar zabaltze ahaleginetan. Beste munduko Unibertsitate askok bezala, baina denak baino gehiago esango nuke, Etxepareren mezu eta eskariaren ildotik ibili da Renoko hau: "Euskara! Jalgi hadi kanpora!", edo Iparragirrek berrehun urte geroago, eta kantuararen laguntzaz, Gernikako Arbolari eskatzen ziona betez: "Eman ta zabal zazu munduan frutua".



Horregatik Euskaltzaindiak, euskararen Akademiak, aurtengo irailean eta Renon bertan, Onomastika Jardunaldi batzuk antolatuz, egin zion Euskal Mintegi horri omenaldia 25.urtemuga honetan. Eta horregatik zabaltzen dizkio gaur Egoitza honen atea paregabe emaitza aurkezteko, hau da, Gorka Aulestia eta Linda White bikoteak prestatutako Hiztegiari, euskaldun batek eta amerikar batek elkar lanean burututako Hiztegiari, hain zuzen. "Elkar" hitz hori ez da une honetan lanaren adierazgarri bakarrik, ELKAR argitaletxeak kaleratu baitu begien aurrean duzen Hiztegia.

Egile biak ditut ezagunak, bata bestea baino gehiago noski. Gorka Aulestia Txakartegi, ondarrutarra, aspaldidanik dut ezaguna eta adiskidea. Duela 22 edo 23 urte ezagutu nuen Gernikan. Izan genituen une atseginak, baina larriak ere. Badugu zeresanik "Seber Altube" ikastolaren zatiketaz, Hidalgo kapitainaren erasoetaz, Iñaki Garai eta Blanca Salegi senar-emazteen asesinatzeaz... 1975.eko maiatzaren 14a zen egun triste, goibel, negargarri hura. Eta badakit nik beste negar egin zuela orduan Gorkak, ezinezaz eta amurruaz. Eta horren lekuko hor daude Gorkak beste liburu baten atarian jarri duen gomutagarria, nik *Elai-Alai* dantza taldearen historiako liburuaren atarian jarri nuen bezalakoa. Tiroz hil zituzten Francoren pistolek eta hori ez dugu inoiz ahaztuko.

Gorkak ihes egin behar izan zuen, baina ez zen kikilduta geratu. Egia esan, halako erasoek herriaren alde lan egiteko adorea ematen dute eta horren ondorioz, eta barru-barruan herriarenganako maitasuna zekarrelako, fruitu ugariak ematen hasi zen 1975ean Estatu Batuetara heldu ondoren. Euskal Literatura aztertzen hasi zen Renoko ikasleen egarria asetuz, kanpokoentzat bertsolaritzaren ikuspegia ikertzen saiatu zen, eta hiztegitzinta berezi batetan murgildu zen buru-belarri.

Eta hemen datorkigu 1981an Gorkarekin euskara ikasten hasi zen Linda White, eta 1983an haren hiztegitzako programan sartu zena. Hirugarren bat ere aipatu behar dela uste dut, Jill Berner anderea, egokitze lanetan ari izan dena. Hasieratik Euskal Mintegiaren zuzendari izan den William Douglass jaunari zor diote hirurak eta zor diogu euskaldunok egindako lan paregabeagatik eskerrona. Eta Donostian abenduaren 17an Hiztegi hau aurkeztu zenean han izan bazen ere, gaur hemen izateko aukerarik izan ez duenez, bihoakio gure eskerrik beroena.

Endrike Knörr, aurtengo abenduaren 18an Euskaltzaindiaren idazkari berria hautatua izan denarekin, eta Xabier Gereñorekin joan nintzen Estatu Batuetara 1985.eko abenduan, Renon bizpahiru egun iraganez. Eta han ezagutu genituen White eta Berner andereak, Gorka Aulestiaren inguruan hiztegitzinta lanetan zihardutenak. Handik lau urtera kaleratu zuen Aulestia "Emazteari eta gurasoei" zuzendutako *Basque-English Dictionary*. 558 orrialde ditu eta 50.000 sarrera edo hitz. Irakasle, itzultzaile eta ikasle nagusientzat egindako Hiztegia da. Helburu beronekin kaleratu zen urte t'erdi geroago, 1990an, Gorka Aulestia eta Linda White egileak direlarik, 397 orrialdeko bigarren Hiztegia, *English-Basque Dictionary*, ikusten denez, bestea baino meheagoa, eta edukinez laburragoa 25.000 hitzekin hornitua. Bi Hiztegi hauek burutzeko 50 hiztegi erabili eta arakatu zituzten Aulestia eta laguntzaileek, liburuen atarian zehazten direnak. Iturri onak direnez, ontzi hauetan bildu diren urak onak izan behar.

University of Nevada Press argitaldariaik bigarren Hiztegi hau atera zuenean, Euskal Herrira itzulia zen Gorka Aulestia eta hemen ekin dio, sei hilabetetan, hirugarren hiztegi bikoitzaren prestatze eta argitaratze lanari: *Euskara-Ingelesa / Ingelesa-Euskara Hiztegia*. Beste bien laburpena da, Elkar-ek Lizarra moldiztegia inprimaturik 1992an atera duena. Mundu zabalean banatzeko bigarren argitarapena Renon egiteko asmoa dutela jakinarazi ziguten Donostian abenduaren 17an aurkeztu zenean. Liburuki berean daude bildurik lehengo bi hiztegi mardulagoak, baina hemen ere Euskara-Ingelesak eduki handiagoa du, 409 orrialdetan 32.000 hitz ematen baitira, eta Ingelesa-Euskarakoan 260 orrialdetan 20.000 hitz baino ez. Eta ez da guti ematen zaiguna, ikasle apalagoentzat, bidaiarientzat eta pre-miazko kontsultak egiteko pentsatua baita.

Linguistek eta lexikografoek ondo baino hobeto dakite zeintzu diren halako lan bat burutzeko zailtasunak. Kultura desberdinetako hitzak parekatu behar direnez, ez daude sarritan baliakideak eta kontzeptuaren azalpenera jo behar da. Bi hiztegi nagusietan euskalkietako sinonimoak hartu baziren, laburrago honetan batuaren bidea hartu da, eta jakina da erabaki honek dakarren zailtasuna, euskara batua oraindik lexikografian ondo finkatu barik baitago. Parekatzen diren bi hizkuntzen lexiko altxorra ere ondo sailkatu eta aukeratu behar da, bietan mintzatzeko tresna egokia izan dadin. Hau eta beste ondo gaindituak direla esango nuke. Beraz, txalotu behar den lana dela aitortu beharko dugu.

Gorka Aulestiari, beraz, eta White andereari eskerrak eta zorionak.